

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Euskararen Nafar Kontseilua zabalagoa, anitzagoa, dinamikoagoa eta gardenagoa izango da

Nafarroako Gobernuak gaur onartu du foru dekretu bidez organo horretan parte hartzeko eta aholkularitza emateko araudi berria

Asteazkena, 2017.eko irailak 6

Nafarroako Gobernuak gaur onartu du Euskararen Nafar Kontseiluaren araudi berria, organo horretan gizartearen ordezkariak izango diren, Gobernua babesten duten lau alderdi parlamentarioek izenpetutako programa-akordioan aurreikusten den bezala, bai eta organo aholku-emaile horri aniztasun handiagoa emateko ere.

Horrela, hizkuntza hori planifikatzearen eta sustatzearen arloan lan egiten duen Foru Gobernuaren organo parte-hartzaile eta aholku-emaile horrek kanpoko 30 kide izango ditu (gaur egun 17 ditu); horiekin batera, Nafarroako Gobernuaren ordezkariak osatuko dute organoa. Azken horiek lehengo berak izango dira.

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuko kontseilaria izango da aurrerantzean ere Euskararen Nafar Kontseilu berriaren lehendakaria, eta Euskarabidearen zuzendari-kudeatzailea, berriz, lehendakariordea; eutsi egingo dio erakundeetako zortzi ordezkarien egungo egiturari ere (Euskaltzaindia, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Nafarroako Unibertsitatea, Eusko Ikaskuntza, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa, Nafarroako Gazteriaren Kontseilua, Ikastolen Nafarroako Federazioa eta Kazetarien Nafarroako Elkargoa), eta bitik zazpita handituko da euskara sustatzeko elkarte edo erakundeek proposatutako ordezkari kopurua, eta zazpitik hamarrera, berriz, euskal kulturaren alorrean prestigioa duten pertsonena, eta Kontseiluko kide izan ahalko dute. Eta kide-kategoria berria egongo da, organo parte-hartzaile horretan bost jarleku izango dituen: Nafarroako Parlamentuak aukeratutako ordezkariena, alegia.

Gainera, araubide berriak kide-izendapen bakoitzeko ordezkariak aurreikusten ditu, eta pertsona horiek izendatzeko emakume eta gizonen arteko berdintasun-politika; guztiek izango dute lau urteko agintaldia, izendatzen direnetik.

Kontseiluaren araubidean sartutako beste hobekuntza batzuk

Euskararen Nafar Kontseilu berritua eta handitua arautuko duen foru dekretuaren testu berriak beste bi aurrerapen garrantzitsu sartu ditu Kontseiluaren eginkizunei eta gardentasunari dagokionez, kontuan hartuta

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamenduak 2016ko urrian Nafarroako Gobernuaren kide diren organoak ebaluatzeko txostenean egindako gomendioak.

Horrela, aholku-organo hutsa izatetik, Euskararen Nafar Kontseilua gizartearen parte-hartze tresna iraunkorra izatera igaroko da hizkuntza hori sustatzeko politika publikoetan, eta babes administratiboa emango zaio Euskarabideatik, organo dinamikoagoa eta erabilgarriagoa izan dadin.

Gainera, araubide berriak berriazko artikulua bat gehitzen du, organoaren jardueraren gardentasuna eta gizartera irekitzea bermatzeko; horrela, derrigorrezkoa izango da urteko memoria zein egiten dituen azterlanak eta proposamenak jendaurrean jartzea, gobernu irekiko atarian edo egoki irizten zaizkion beste plataforma batzuetan, herritarrek kontsultatu ahal izan ditzaten.